

VIII A-2

GURUTZE-BIDE

EDO

KALBARIOAK

BEARDEN BAIMENAREKIN

IRUÑAN

J. GARCIAREN MOLDIZTEGIAN

1924-en urtean

ARCHIVO

P. DONOSTIA

LECARRON (Navarra)

GURUTZE-BIDE

EDO

KALBARIOAK

BEARDEN BAIMENAREKIN

IRUÑAN

J. GARCIAREN MOLDIZTEGIAN

1924 en urtean

Eskeñia

Nere Jaun Soberanoa, umiltasun guziarekin eskeintzen diot Zure Jainkozko Majestadeari ejerzizio sandu onetan egin, meditatu eta errezatuko dedan guzia, nere bekatuen barkaziorako eta oyegatik merzei ditudan penagatik eta purgatorioko animengatik. Amen.

Asiera

Nai badezu ongi bizi
bear dezu Kristiua
Jesusen Pasioa
biotzean iduki;
maiz pensatzearekin
alako eriotzea,
¡Ay, Jesus! ¡dela posible
berriz Zu ofenditzea?

= 2 =

+

Lendabiziko estazioa

Emen Jesus amorosua
zuten kruelki azotatu
eta iltzera sentenziatu,
baliz bezela alebosua.

Jesukristo loturik
dago emen biluzia,
galdurik iduria
guzia llagaturik,
bost aldiz pasaturik
milletan azoteak,
¡Ay, Jesus!...

Jauna, pekatu egin det
izan zazu nitaz misericordia.
Aita gurea, Ave Maria ta Gloria.

= 3 =

+

Bigarren estazioa

Sentenziaturik iltzera
eramanzuten bereala
gurutzea soñean zuela
sentenziaren kunplitzera.

Gurutze pisu baten
karga soñi flakoetan,
iltzeko beré artan
paratu zioten emen:
Pensa zazu zembat zaren
Jaungoikoari gostea
¡Ay, Jesus!..

= 4 =

†

Irugarren estazioa

Begirazazu piedadez
Jesus dulzearen gana
lurrean eroria da
zure bekatuen maldadez.

.....

Kargak ikaraturik
guzia dezakena,
zerua egin zuena
lurrera eroririk:
¿xutitzeko lagunik
ez duzu, Jaun nerea?
¡Ay, Jesus!...

= 5 =

†

Laugarren estazioa

Amak bere Semeari
Semeak bere Amari
begireturik elkarrerri
eman zioten negarrari.

.....

Ona non topatu zen
Ama Sanduarekin.
¡Nolako penarekin
Maria gelditu zen!
Aren atzean joan zen.
¡Oh, zein guztiz tristea!
¡Ay, Jesus!

= 6 =

†

Borzgarren estazioa

Simonek lagundurik
gurutzearen eramaten,
erakustendio kargatzen
utzi gabe penaturik.

.....

Lagun bat eman zioten
geyago penagatik
bizirik Kalbariora
allegatzea gatik:
merxedeaa egiteagatik
etzen izandu merxedeaa.
¡Ay, Jesus!...

= 7 =

†

Seigarren estazioa

Jesuseri izerdia
Beronikak xukatu zion
ta premiotan utzi zion
aurpegiaren iduria.

.....

Zegoan bada beterik
odolez aurpegia
gelditu zen guzia
mengalaz markaturik:
Bere pagua arturik
dijoa kontent andrea
¡Ay, Jesus!...

= 8 =

†

Zazpigarren estazioa

Bi aldiz bada erori
Jesus gurutzearekin,
pensa dezazu onekin
zer den zure kulpa ori.

.....

Erortzen da lurrera
berriz Jainko gurea.
¡Nola pekataria
emendatzen etzera?
Zuk egin dezu, bada
aiñ pisu gurutzea.
¡Ay, Jesús!...

= 9 =

†

Zortzigarren estazioa

Alabak Jerusalengoak
nitaz negarrez zaudetenak,
egin dituzien pekatuenak
izan bitez zuen penak.

.....

Emen erakusten zaizu
nola negar egiten,
ezpadezu ikasten
zuk biotzik ez dezu:
Edo aiñ gogorra daukazu
nola dagoan bronzea.
¡Ay, Jesus!...



Bederatzigarren estazioa

Ikus zazu, bai, gizona,
bekatuaren maldadea,
zein izan zen botazalea
iru aldiz Jesusena.

.....

¡Zein kruela zaren zu!
¡zein kruela diot berriz!
¡erori da iru aldiz!
¡eskua ematen ez diozu?
¡Pekatuan egon nauzu?
¡Oh, zure doakabea!
¡Ay, Jesus!...



Amargarren estazioa

Tunika kendu ziotenean
zauri, llagak berriturik,
guzia lastimaturik
gelditu zen odolean.

.....

Zauriak bilustean
llagak ere berritzen,
¡nola etzaizu erdiratzen
biotza pensatzean?
Ainbat jendeen aurrean
¡Oh, Jesusen ahalkea!
¡Ay, Jesus!...



Amekagarren estazioa

Oiñ, eskuak josirik
iltze gogorrez gurutzean.
¡Oh, nolako goatzean
zagon Jesus penaturik!

.....
Bi lapurren artean
Jesus paratzen dute,
zaticatzen ere dute
iltzekin jositzean:
zuk kulpa berritzean
berritzenda kolpea,
¡Ay, Jesus!...



Amabigarren estazioa

Jesus iltzen guregatik
gurutze gogor batean,
¡nor egonen da berean
ilgabe Jesusen gatik?

.....
Emen iltzen guregatik
biziaren jabea
batere obenik gabea
pekataria gatik,
berazdanik eztakik
nola ezten biotz zurea.
¡Ay, Jesus!...



Amirugarren estazioa

Piedaderik baldin bada
 Kristiuren biotzean
 aditzera eman bearda
 Amaren soledadean.

.

Josefek erausirik
 bere Amak artzendu,
 gorputza ikustendu,
 deklaratzeko eztu itzik:
 ¡Bere besoetan illik
 Bere Seme maitea!
 ¡Ay, Jesus!...



Amalaugarren estazioa

Lur barrenean sarturik
 ona non dago ortzirik,
 Jaungoiko ta gizon izanik,
 iltzen bada guregatik.

.

Gorputza Jaunarena
 dago emen ortzirik
 Pasioaz oroiturik
 bego ongi ill nai duena;
 deboziorik oberena
 maiz ontan pensatzea.
 ¡Ay, Jesus!...

Akabera

Penetan lagun denak
glorian ere beardu
Kristo emen ikusten du
pizturik Magdalenak:
Gero ongi nai duenak
Artu orain penatzea.
¡Ay, Jesus!...

San Franzisko Jabierren kontriziozko aktoa

Ez narama, Jauna, Zu maitatzera
Zuk neri agindutako zeruak,
Eztare beldurgarrizko infernuak
Pekaturako bideak uztera;
Kupitzen nau, Jauna, Zu ikusteak
Gurutzean josia, burlatua,
Gorputz guzia oso zauritua
Eta zure eriotza tristeak.
Zu maitatzeko ez det bear zerurik,
Eztare beldurtzeko infernurik:
Biak baleude ere Kendurik,
Naiko nizuke amorez beterik,
Eskatu gabe nik beste saririk,
Baizik zure amorea bakarrik.

